

DIRU-ITURRIAK

Enpresa funtziona dezan hainbat **gastu** zein **diru-sarrerak aurreikusi** behar ditugu. Alde batetik, enpresa martxan jartzeko inbertsioak egin behar ditugu, hasieran diru gutxirekin utziko gaituena. Baina, gero lortuko ditugun diru-sarrerekin, eta guztia ondo badoa, irabaziak izango ditugu. Zerbitzu ezberdinak eskainiko ditugu diru-sarrerak lortzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen laguntzaz baliatuko gara ere.

1. AURREIKUSI BEHAR DITUGUN INBERTSIOAK


Beranduago kostuen egituretan azalduko dugunaren arabera, hasteko egin behar ditugun inbertsioen aurreikuspena lehenengo sei hilabeteetan **guztira 11.844€koa izango da**. Kostuen barruan lokalaren alokairua, informatika materialak, establezimendurako gastuak,, internet eta bestelakoak eta aseguruak, baita ura, argia eta gas gastuak sartu ditugu barne.

Gure **hasierako inbertsioa 8.000€koa** izango da (bakoitzak 2.000€ jarriko ditu). eta lau pertsonen artean eramaten dugu enpresa. **Sozietate mugatu** bat gara, ez zaigulako interesatzen gure ondare guztiak galtzea enpresak porrot egitekotan. Horregatik, enpresa ez funtzionatzekotan bakarrik 8.000€ horiek galduko genituzke. Baina, aurreikusi ditugun gastuak ia 13.000€koak direnez (1.200€ gehiago jarri ditugu koltxoi ekonomiko txiki bat izateko) eta guk bakarrik 8.000€ ditugunez, **Sabadell bankuari** 5.000€ko mailegu bat eskatuko diogu (beranduago 150€ko intereseekin bueltatu beharko duguna). Hemen Bankia eta Sabadell bankuen arteko konparaketa, non Sabadell bankuaren interesak txikiagoak direla ikusten den:

	SABADELL	BANKIA
Zenbatekoa	5000€	5000€
Interes-tasa	10%	10,5%
irekiera-komisioa	1.5%	2% (120€)
Interesak	150€	154,24€
GUZTIRA	5150,74€	5.274,24€

Edozein negoziotan ohikoa den bezala, enpresaren jarduera eskasa izango da hasieran. Hala ere, kanpaina gogor baten bidez eta publizitate on baten bidez ahalik eta diru-sarrera gehien izaten saiatuko gara, dirua berreskuratzen hurrengo urteetan irabazi hoberenak izateko.

2. ENPRESAREN ZERBITZUAK



Eskainiko ditugun zerbitzuak bi motatan zatitu daitezke. Alde batetik, **oinarrizko zerbitzuak** eskaintzen ditugu (garbitasuna eta higieena, medikazio kontrola eta konpainia), eta bestetik gehitu ahal diren **hautazko zerbitzuak** (etxeko lanak edo garbiketa eta ariketa fisikoa).

3. DIRU-LAGUNTZAK

Mendekotasun gradu bat daukaten pertsonak laguntzak jasotzen dituzte gobernuaren aldetik, beraz haien poltsikotik ez dute diru gehiegi ordaindu beharko. Gobernuak mendekotasuna daukaten pertsonentzat bi aukera eskaintzen dituzte: gobernuak berak laguntza zerbitzu bat, edo dirua bakoitzak bere zerbitzu pribatua ordaindu dezan. Honek esan nahi du agureak ez dutela janaria edota arropa erosteko erabiltzen duten diruarekin ordaindu beharko, baizik eta gobernuak emandako extra batekin. Alde batetik pentsioa jasotzen dute, eta bestetik diru hau. Laguntzak mendekotasun graduaren arabera aldakorrik dira, horregatik Gradu I daukan bezeroari ez diogu Gradu III daukan bezero beste kobratuko. Zenbatekoak hurrengoak dira:

Mendekotasun gradua	Zenbatekoa
Gradu III (90 eta 100 puntuaketa artean)	833,96 €
Gradu III (75 eta 89 puntuaketa artean)	625,47 €
Gradu II (65 eta 74 puntuaketa artean)	462,18 €
Gradu II (50 eta 64 puntuaketa artean)	401,20 €
Gradu I (40 eta 49 puntuaketa artean)	300€
Gradu I (25 eta 39 puntuaketa artean)	300€

iturria:https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11118&idioma=C&dpto_biz=3&codpath_biz=3%7C7728%7C7734%7C11118

4. PREZIOAK

Taula bat egin dugu hasiera batean kobratuko dugun diruarekin. Zerbitzu bat eskainiko dugunez bezeroek ordainketa errepikariak egingo dituzte, hilabetean behin. Alde batetik, bezeroak erabaki beharko du langileak **zenbat egun** joango den bere etxera: bi, hiru edo lau egun. Kontrataturako zerbitzuaren orduak astean ez dira gehiegi aldatuko (hau da, astean hiru orduko zerbitzua nahi badute, berdina izango da bi edo hiru egunetan zatitu behar izatea zerbitzua). Gero, bezeroak **haiekin bat datorren zerbitzua hautatu** beharko dute: lehenengo, haien mendekotasun gradua, eta gero erabaki bakarrik oinarrizko zerbitzuak edo baita hautazkoak nahi dituzten. Hau eginda, hurrengo taulan egokitzen zaien prezioa ikusi beharko lukete:

LAN ORDUAK						
	GRADU I		GRADU II		GRADU III	
	Oinarrizko zerbitzuak	Zerbitzu guztiak	Oinarrizko zerbitzuak	Zerbitzu guztiak	Oinarrizko zerbitzuak	Zerbitzu guztiak
2 egun / aste	1:30 ordu / egun	3 ordu / egun	3 ordu / egun	4 ordu / egun	4:30 ordu / egun	6 ordu / egun
	3 ordu / aste	6 ordu / aste	6 ordu / aste	8 ordu / aste	9 ordu / aste	12 ordu / aste
	150€ hilabetero	300€ hilabetero	300€ hilabetero	450€ hilabetero	550€ hilabetero	650€ hilabetero
3 egun / aste	1 ordu / egun	2 ordu / egun	2 ordu / egun	2:45 ordu / egun	3 ordu / egun	4 ordu / egun
	3 ordu / aste	6 ordu / aste	6 ordu / aste	8:15 ordu / aste	9 ordu / aste	12 ordu / aste
	150€ hilabetero	300€ hilabetero	300€ hilabetero	475€ hilabetero	550€ hilabetero	650€ hilabetero
4 egun / aste	1 ordu / egun	1:30 ordu / egun	1:50 ordu / egun	2 ordu / egun	2:15 ordu / egun	3 ordu / egun
	4 ordu / aste	6 ordu / egun	6 ordu / aste	8 ordu / aste	9 ordu / aste	12 ordu / aste
	200€ hilabetero	300€ hilabetero	300€ hilabetero	450€ hilabetero	550€ hilabetero	650€ hilabetero

Hala ere, taula hau egin dugu jarriko ditugun prezioen gutxi gorabeherako ideia bat izateko. Baina, gure ideia **zerbitzu pertsonalizatuak** eskaintzea da. Hau da, bezero batek esaten badigu eskaintako ordutegia ez datorkiola ondo, **aldaketak** egin ahalko genituzke. Horregatik, prezio finakoak izan arren, dinamikoak izan daitezke ere. Adibidez: Gradu II-ko zerbitzu guztiak kontratatu duen bezeroa, langilea haren etxera astean hiru egun etortzea erabaki duena. Gure taularen arabera, langilea egunero 2:45 ordu egon behar da, baina bezeroak nahiago du bi egun bi ordu egotea, eta azken eguna 3:30 ordu. Ez legoke beraz arazorik egongo aldaketa mota hauek egiteko.

5. LANGILEAK

Datu hauek guztiak izanda, badago kontuan izan behar dugun gauza bat gehiago: **langileei ordainduko diegun soldata**. Bezeroen eskariaren menpe gaude, baina gure ideia da soldatak ematea lan egiten duten **orduen arabera**. Astero 25 eta 40 ordu bitarteko lanaldiak egingo dituzte, eta lan egindako orduen arabera kobratuko dute (25€ ordu bakoitzeko):

LAN ORDUAK ASTEAN	ORDAINKETAK
25 ordu astean	625€/hilabete
30 ordu astean	750€/hilabete
35 ordu astean	875€/hilabete
40 ordu astean	1.000€/hilabete

Langile bakoitzak astelehen eta ostiralaren artean zatituko ditu bere bezeroak. Gure ideia **beti bezero berdinekin** lan egitea da, hobe delako bezeroak ezagun batekin egotea, astero edo hilabetero aldatzea baino. Logikoki, bezeroak ez ditugun arte ezingo dugu guztia antolatu, agian gradu II eta gradu I-eko bezero asko ditugu eta gradu III-ko bakarrik 5. Hala ere, hemen egin dugu langile baten ordutegi posiblea:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA		
9:00-10:00							
10:00-11:00	BEZERO A		BEZERO A		BEZERO A		
11:00-12:00							
12:00-13:00							
13:00-14:00	BEZERO D		BEZERO D		BEZERO D		
14:00-15:00		BEZERO B				BEZERO B	
15:00-16:00							
16:00-17:00							
17:00-18:00							
18:00-19:00	BEZERO C	BEZERO C	BEZERO C	BEZERO C			
19:00-20:00							

Bezero A → gradu I, zerbitzu guztiak, 3 egun astero (2 ordu egunero)
 Bezero B → gradu II, oinarritzko zerbitzuak, 2 egun astero (3 ordu egunero)
 Bezero C → gradu I, oinarritzko zerbitzuak, 4 egun astero (1 ordu egunero)
 Bezero D → gradu III, zerbitzu guztiak, 3 egun astero (4 ordu egunero)

Guztira 28 lanordu = 700€/hilabete

6. GUZTIRA IZANGO DITUGUN DIRU-SARRERAK

Merkatuaren Segmentazioan azaldu dugun bezala, 65 urte baino gehiago dituzten 263.226 biztanle daude Euskadin. Egin ditugun estimazioen arabera, sektorearen %2 inguru izatea estimatu dugu. %2a 5.264 den arren, 5.000 bezero izango ditugula suposatu dugu, badaezpada.

Eskaintzen ditugun zerbitzuen prezioak 150 eta 650 artekoak direnez, batez besteko diru-sarrerak 400€/hilabete dira. Hau da, 5.000 bezero baditugu eta bakoitzak hilabetero 400€ ordainduko balitu 2.000.000€ko diru-sarrerak izango genituzke.

Baina, diru horrekin langileen soldatak, lokalaren alokairua eta gainerako kostuak ordaindu behar ditugu. Goian egindako taulan langileak gutxi gorabehera 4 bezero ezberdinekin egingo dutenez lan, 1.250 langile kontratatuko genituzke (5.000/4). Eta, soldatak 625 eta 1.000€ bitartekoak direnez, gutxi gorabehera bakoitzari 800€ egokituko litzaizkioke hilabetero. Beraz 1.000.000€ soldatetan gastatuko genituzke. Gero, beste 400.000€ hobekuntzak egiteko erabiliko genituzke. Eta, datu hauen arabera, **600.000€-rekin geratuko ginateke** (urte bat pasa ondoren, lehenengo hilabeteak enpresa martxan jartzeko izango direlako).

Guztira izango ditugun diru sarrerak		
BEZEROAK	263.226ren %2 = 5.264 →	5.000
DIRU-SARRERAK	5.000 (bezeroak) * 400 = 2.000.000	2.000.000€
LANGILEEN SOLDATAK	1.250*800 = 1.000.000	-1.000.000€
HOBKUNTZAK	400.000	-400.000€
AZKENENGO IRABAZIAK (lehenengo urtean)		600.000€

Hala ere, lehen azaldu dugun bezala, eragiketa hauek **estimazioak baino ez dira**, ez dakigulako zenbat bezero izango ditugun. Horregatik, enpresa martxan jartzen dugun momentura arte ez dugu jakingo zenbat bezero izango ditugun, eta ondorioz zenbat diru-sarrera izango ditugun.